

# "PRINCIPE DE VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento  
en Euskara  
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea  
154'gn. zenbakia

Iruña - 1983 - Uztaila

Franc. conc.  
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.  
Príncipe de Viana  
J. JOSE GRAU

## Nekazari: arrokeria, galgarri

Arrokeriak ez du inun ere ondorio zuzenik ekartzen. Ezta nekazaritzan ere. Naparroa'ko gure sorobarrutietaraino iritxi bait da arrokeria.

Arrokeria aipatzean nekazaritzako makiña eta tramakuluak dauzkat buruan. Makiñen eta tresna berri oien etsaiak garelako? Ez!

Denbora berriek era berriak eskatzen dituzte. Gaur ez ditezke lurrrak orain dela berrogeitamar urte bezala landu. Ibilli ere, ez gera gaur gure asabak ibilli ziren bezala ibiltzen. Aiek zaldiz edo oiñez ibiltzen ziren, bidean aldi luzeak galduz eta neke gogorak jasoz. Gaur beribillez eta egazkiñez gabiltz. Euskalerritik Ameriketara joatea, aiei Aranz'ko Etxarritik Iruña'ra etortzea baiño denbora

gutxiago kostatzen zaigu.

Eta nekazaritzan? Zenbat lan-keta gogor mingarri eta neke oñazetsuak erabilli bear ez izaten ez zituzten gure aiton-amonak?


Ez, gaur ez ditezke lurreko lanak orduan egiten ziren bezala egin. Nekazariaren laguntzarako sortu diren aurrerapen oiek denak ongariak dira. Gizonari nekea kentzen diote, eta beste eginkizun batzuetarako, irakurtzeko eta gauza berriak ikasteko adibidez, asti eta atsedan ugari ematen dizkiote.

Geiegikerian dago gaitza. Zenbat diru ez da alperrik galdu makina oiek erosten? Gure Erriberan, adibidez, etxeko jaunak berak kejatzen dira. Milloika peza gastatu ditugu, urtean zortzi edo ambost egunetan bakarrik lan egin bear duten makiñak etxera ekart-

zen. Etxe bakoitzera, bat! Nere auzokoak ona? Nik ohea! Ez nedin nere auzokoak baiño kazkarrago gelditu!

Eta ez al da ori arrokeria? Ez al da zorakeria? Geldi dagoen makiña, errentarik ematen ez duen korrituan jarritako dirua bezala bait da.

Nun dagoen erremedioa? Alkartasunean. Kooperatibetan. Alkarrarteko langintzan! Ogei etxeko erri baterako bost traktore, iru uzta makiña eta lau erainle naikoak dira? Erosi ditzegun, ba, oiek bakarrik, eta erabilli ditzegun denon artean. Ikasi dezagun bata bestearekin alkartzen. Baiña ez dezagun alper-alperrik etxean ez dugun dirurik erre. Ez ditzegun, arrokeriaren aizeak zoratuta, gure etxeak eta gure familiak zorretan ondatu.



Naparroa'ko Erribera. Uzta aberatsak. Uzta aberatsen artean makiña berri eder garestiak. Buruaste audietatik eta neke latzetatik libratu gaituzte makiña oiek, baiña buruaste berriak ekarri dizkigute. Ez ote dira buruaste berri auek lengo aiek baiño aundiagoak?

(J. Nagore argazkia)

## DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK

### EUSKERAREN ALDE

**DIRU-LAGUNTZA.** Aurtengo azkeneko lau illabeterako diru-laguntza eman die Nafarroa'ko Aldundiak Nafarroa'n diren 36 ikastolei. Joan diren illabetetan beste diru-laguntzak eman dizkie, denetara -1983'gn. urte ontan- 210 milloi betetzeko.

**XI'GN. EUSKAL IKASTAROAREN IRAKASLEAK.** Udarako XI'gn. Euskal Ikastaroa eramateko, urrango irakasleak autatuak izan dira: Imanol Aramburu Carrera, Sagrario Yarnoz Yaben, Jon Saldua Lasa, M.<sup>a</sup> Jesus Galarza Zabala, Fernando Rey Escalera, J. Ignacio Zarraga Goiri, Jesús Aldaz Remiro, Juan Rey Bacaicoa.

**E.G.B.'KO IRAKASLEEN ORDEZKARIAK.** Urrilla'ren 31'gn. eguna arteraño, E.G.B.'ko Irakasleendako Euskal Ikastaroan Leitzan izango diren 30 maistra-maixuak ordetzeko, deia egiten zaie E.G.B.'ko maitra-maixuei eska dezatela egun ura arteraño ordezkariak izateko izendatu ditzaten.

### BELAR-SORO BERRIAK

Belar-soro berriak egiteko dirua aurrenduko du Nafar Diputazioak; erriek, berriz, dirua korriturik gabe itzuli bear dute amabi urte-epetan. Baldintza onuragarri auekin egingo dituzte belar-soro berriak **ALKOTZ, BERUETE, GARTZAIN, ARRAITZ-ORKIN** eta **ILLARREGI** errietan. **ILLARREGI**'koak erri-lurretako 76 H.<sup>a</sup> izango ditu, eta 12 milloi baiño geiago sartuko dituzte egin bear diren lanetan.

**ERRONKARI**'ko «Burgi-Akute» lekuan berez diren larreak obetzeko, ura ornituko dute baita eldutzeko bidea egin ere, 5 milloi ta erdi ordainduz.

Gauza bera **ERRO-IBAR**'ko «Azkatarr» lekuan, bi milloi ta erdi ordainduz.

### BAIMENAK

**EGIARRETA.** «Santialde» lekuan erri-lurretako 108 arrobada zortzi urtetarako alokatzeko baimena eman diote Egiarreta'ko Batzarrari.

**EZKAROTZ.** Saraitzu'ko Xunta Nagusiari 1545 metrotako erri-lurra, 1.000 peztetan metro bana, saltzeko baimena eman diote Eskarotz'eko Udal edo Aiantmentuari, erran dugun Xuntak bere Etse berezia egin arazi dezan.

**XUARBE.** «Sandrone'ko Bordaldea»n 180 metrotako erri-lurra, norgeiagoka agirian, saltzeko baimena eman diote Xuarbe'ko Batzarrari ere.

# EUSKAL ERRIKO LEIOA

### NAFARROA'KO GOBERNUAREN MAI BERRIA

Aldundiaren bilkura tokian mai berri bat ezarri dute; noizbait osatuko den Gobernuak erabiliko duen maia ain zuzen.


Aurreko maia perra baten antzekoa zen; oraingoa, berriz, laukozuzen edo errektangularra da; ta onen gainak 7,40 m. ditu luzean, ta 2 m. zabalean. Apaingarriak, bestalde, aurreko mai zaararenak ditu, erlaizte, moldura ta abar.

«EZKURDIA Erredizak» egin du beste lau aukirekin, lengo zortziren berdiñak. Guztira, mai ta aulki, 2.812.748 pezta kosta da.

Bilkura gelako ormak Maeztu margolariaren pinturaz apainduak daude, Nafarroa'ko bizitza agertzen dutelarik. Sapaian, Nafarroa'ko Erregeen arma-rria dago intxaur egurrez egiña.

### GAZTEIZ'KO GOBERNU BARRUTIAN

Euskalerrri'ko zati ortan garrantzizko etxe ta beste monumentuak azalduko dira liburu eder batean; danera, eundik gora izango dira bereziki aipatuak, Euzko-Gobernuko lan-sail ontan arduradun den Zabala'tar Aingeru'k adierazi duenez.



Balmeda'ko zubi zaarra

Ortarako, aurrez ta garaiz, lan sako-nak egiten ari dira; ta argazki eder ta ugariak apainduko dute gertatuko den liburu edo idaztia.

Ona emen, lan-zerrendan agertuko diren zenbait etxe bikain eta erailki edo monumentuak:

### ARABA'N:

Labastida'ko erri-etxea.  
Villanañe'ko Varona'tarren Dorrea.  
Zalduendo'ko Lazarraga Jauregia.  
Barria'ko Zister Monastegia.  
Gebara'ko Jauregia.  
Quejana'ko Ayala Jauregia.  
Gazteiz'ko España Emparantza.  
Armentia'ko Casa Palacio del Santo.  
Gazteiz'ko Bendaña jauregia,  
eta abar eta abar.

## Euskerazaintza

**EUSKERAZAINTZA'K,** Euskeraren Erri-Akademia'k Uztaila'ren 30'ean egin du Eibar'en illeroko Batzarra, Akesolo'tar Lino jaunaren lendakaritzapean, bera danez Euskerazain-burua.

Aurreko batzar-agiria onartu ostein, Akademi-alorreko lan eta gaien ikerketan jarraitu du. Jasotako iritzi ta iker-lanei borobildu egokia emateko asmoz, eta Bizkaieraren garrantzia nabarmendu-eraziz, Bizkaiera ain maisukiro dakiten Akesolo, Arostegi ta Olazar Jaunen esku ipiñi du Batzarrak egun arteko ikerketen bateratze-lan burutzea.

Irudibidezko iztegia dan **DUDEN** ezaguna euskeratzea burutu-zorian du Zatarain jaunak eta Batzarrari eskatu dizkio zenbait itzulpen-tzako iritziak eta argibideak, guztien artean argitzea ta aberastea lortuz.

Orduña'ko Udalari emateko erantzuna; Euskeraz jakitearen gaitasun-agiria emateko aalmen eta bideak; Madril'go Kultura-Zaingo'ra egiñiko diru-eskearen erantzunik eza: orra Batzarrean azterturiko beste gai nagusienak.

Igorritako eskutitzak eta eskaerak batetik, eta jasotako erantzunak ere bestetik, aztertu ondoren, antolatu-asmotan diran omenaldiak aurrera daramazkitela adierazi dute arduradunek.

## GIPUZKOA'N:

Oñate'ko Bidaurreta moja-etxea.  
Donosti'ko Casino Zaarra.  
Lazkano'ko Duque del Infantado jauregia.  
Arrasate'ko Udal-etxea.  
Azkoiti'ko Insausti jauregia.  
Zestua'ko Lili jauregia.  
Segura'ko Gebara jauregia.  
Azpeiti'ko Antxieta jauregia.  
Bergara'ko Ozaeta jauregia.  
Zumarraga'ko Legazpi'ren jalotetxea.  
Oñate'ko Ikastetxe Nagusia.  
Donosti'ko Miramar Jauregia.  
Ekain ta Altxerriko leize-irudiak.  
Urretxuko Ipiñarrieta Jauregia,  
eta abar, eta abar.

## BIZKAI'A'N:

Portugalete'ko Zubia.  
Arenaza'ko Leize Zuloa.  
Lekeitio'ko Uriarte Jauregia.  
Balmaseda'ko Zubia.  
Ermua'ko Valdespina Jauregia.  
Elorrio'ko Casa-Jara jauregia.  
Gernika'ko Batzar Jauregia.  
Otxandiano'ko Udal-etxea.  
Elorrio'ko Berriotxo jauregia,  
eta abar, eta abar.

## IRUÑA'KO IZKUNTZA-ESKOLA, EUSKERAZKO AGIRIAK EMATEN

Madril'go Eziera-Ministerioaren esku ta menpean dago Zaragoza'ko Izkuntza-Eskola. Eta onek badu eskubide bai euskeraz irakasteko ta bai agiriak emateko, baiña ez du ezer egin euskeraren alde. Arritzekoa ote da?

Naparroa'ko Aldundiak bere babesean eta diru-laguntzaz jarria zeukan Iruña'n «Izkuntza-Eskola» euskeraz irakasteko. Baiña... ikasi zutenei, agiri edo titulorik ezin zien eman.

Zer egin? Eskatu egin bear izan du eskubide ori Naparroa'ko Aldundiak. Eta orain, Zaragoza'ko Unibersidade-barrutiaren babesean dagoenez, Iruña'ko Izkuntza-Eskolak, bertan ikasten dutenei ta azterketak egiten dituztenei, eskubide osoz eman dezaizkieke agiriak edo tituloak.

Iruña'ko Izkuntza-Eskolan izena emanik daudenek, eta euskeraz ikasten ari direnek, bertan lortu dezakete gaitasun-agiria edo tituloa.

Zorionean, aukera bat geiago, benetako askatasun-giroan: Bilbo'ko ta Iruña'ko Izkuntza-Eskolak batetik, Euskaltzaindiak eta Euskerazaintzak bestetik, erakunde auek guztiek eman ditzakete agiriak.

## INBULUZKETA BAZTANDARRA, SARITUA

Inbuluzketa Alkasena'tar Gabriel, Elizondo'ko semea, Iruña'n albistari edo egunerokoetako idazle da. Naparroa'ko Esku-langintza gai dela, leia-keta bat izan denean –ain zuzen ere egunkarietarako sariketa–, lenengo saria irabazi du baztandarrak.

«Naparroa'ko Esku-lanen Erakusketa» antolatu zuten Iruña'ko «Ziudadela» izeneko leku berezian. Eta arrakasta aundia izan du erakusketa orrek.

## Gasteiz'en «Zuria»'ren aurka

Ekintza beltza ta gorrotoz betetakoa, Ama Birjiñaren irudia bigarren aldiz puskatzea.

Oraingo ontan, Ama Birjiña bera ez; bañan, bai besoetan daukan Jesus Aurtxoaren besoa, izan da puskatutakoa.

Irudia, San Miguel Elizaren kanpoko aldean arkitzen da; ta gertakizun beltz orren ondoren, eliz ortako apaizburua onela mintzatu da: «Piztiak baiño kaltegarriagoak diren zenbait gizakumeen ekintza beltz ori dela-ta, Gasteiz'tarrei eskatuko nieke datozela onera otoitz xamurrak egitera, beren Zaindari den Ama Birjiñari».

Gasteiz'tar geienak oso mindu-ta gelditu dira, ta berealaxe ekin diote egindako okerra zuzentzen.

Etxarri Aranaz'ko elizatxo edo ermita bat ere erre dute; Bizkaia'n, itsas ertzean dagon Gaztelugatxe'ko ermita ere bigarren aldiz errea izan da; ta antzeko gertaerak an eta emen.

On Nestor Zubeldia, Iruña'ko Kalonjeak, esan oi zigun bezala: Zer gertatzen da erri kupidagarri ontan?  
–«Norbait dabil ortik!»



Gasteiz'ko Amabirjiña «Zuria»  
Aurraren besoa autsita

Aren zabalkundean anitz eta ongi lan egin du Inbuluzketa kazetariak.

Orain, lenengo saria irabazi duenez, 70.000 pzt. jaso ditu Inbuluzketa Gabirel'ek «Diario de Navarra» egunkarian argitara eman zituen lanak egoiak zirelako.

Zorionak, Gabriel, gure esku-lan eta gauzak maitasunez erabiltzen dituzulako. Eta zorionak, egin duzu lan bikaiña aintzat artu ta saritu diotelako.



Gabirel Inbuluzketa baztandarra,  
kazetari saritua. (MENA arg.)

## ENVER HODXA AGURE GORRIA

### ALBANIA'KO GOBERNARI ZORATZAILLEA

Irurogei ta amar urte ditu, ta bere izena Enver Hodxa; ta ango emakumeak txoratu-ta bezala gelditzen dira beren begi aurrean azaldu bezain laixter, txaloka ta orruka asten direla; ta bere itzak entzutekin batera, emakume bat baiño geiago, bere onetik aterata, kordea galtzera irixten dira, zenbait abeslariekin gertatzen den bezalaxo.

Gazte lilluratzaille bat ote da Enver Hodxa, Albania'ko gobernari nagusia? Dakigunez beintzat, ez da ez abeslari, ez zezen-toriatzaille ta ez futbolari. Baiña trebea da –Franco ere trebea izan zen antzera– bere erria ixillik eukitzeko. Albania ere, erri guztien antzera, askatasun-zalea da, zalantzarik gabe. Baiña jauntxo-diktadore onek, bere oski-pean mutu dauka erria.

Eta orra orain Albania'ko Gobernuak albiste oso berezia zabaltzen duela alde guztietara. Zer ote da? Diktadore urtetsu orrek, sekulako lillura ta erakarpenna sortzen omen dituela emakumeengan. Bai, lilluraturik eta zorabiatu-ondo-eza egiteraiño. Nork sinistuko du? Burugabe erotzat artuko ote gaituzte guztiok?


## NAPAR BAT KATALUNIA'N

Mendabia'ko semea, Asurmendi'tar Anjel, irakasle ta ezizaille da, Salesianoen Lagundikoa bait da. Eta aurtengo udaberrian apeztu da.

Katalunia'ko lurretan bizi da: ogei urte aundi, an dabillela. Eta zer? Pozik ari da bere ezizaille-lanean. Ona emen zer dion berak:

—«Katalunia'n bizi naizen arren, naparra naiz ni. Ogei urtez nabil emen eta Katalunia'k eragin aundia izan du nigan: asko aldatu nau. Asko maite dut Katalunia ta eziketaren bidez laguntzen diot. Katalunia'ko pentsakera edo giroa artu dugu. Eta izkuntza ere ikasi dugu, ongi mintzatzea erraza ez ba'da ere».

Eskerrik asko, adiskide ez-ezagun orri. Naparroa'tik joan zeran tokian, bertako izkuntza ikasi duzu ta erabiltzen duzu. Eta zuk bezala ainbeste apez, monja, fraile mixiolariak. Bitartean, emen Naparroa'n bertan, ez dakitenek ez dute ikasi nai «Nafartarren izkuntza», beren anaien, beren gurasoen izkuntza.



Aingeru Asurmendi, salesianoa, Mendabia'ko semea, Katalunia'n bizi dena ta ango izkuntza ikasi duena

## LEITZA'N EUSKERA IKASTAROA

Ogeitamar eskola-maixu, Euskera geiago ikasten asiak dira ikastaro ontan. Bederatzi milloitik gora banatze-koak dira, Uztailla'n asi ta Urrilla'n bukatuko diren ikasketa oietan.

Maixu-ikasketa ontara etorri diren maixuak, erri auetakoak ditugu:

Alzatsu, Bakaikoa, Berroeta, Etxarri-Aranaz, Auritz-berri, Goizueta, Irurita, Irurtzun, Lakuntza, Larraintzar, Lekunberri, Leitza, Lizarraga, Amaiur, Oronoz, Iruña, Sunbilla, Biana, Yaben, Igantzi ta Zubiri.

Ikasleak astelenetik ostiral arte barnean egonen dira.

Maixu oien soldatak Diputazioak ordaintzen dituelarik, uste dugu urrengo ikastaroetan ugarituko direla euskararenganako maitasuna erakusiko duten maixuak.

## «Sanfermiñak»

Iruña'ko jaietan, xexenak direla-ta, aurten eriotzarik ez da izan, naiz urtero bezala zauritutako batzuk odola dariotela ikusi.

Bañan, au dela ta bestea dela, ezbearrez ildakoak aurtengo pestetan lau gizakume izan dira. Bat, 21 urtekoa, Berriozar'en bizi zena; ikusten denez, amerikar neska gazte batekin aurreragi sartu zela-ta, sortutako ixkanbilla ta borroka baten ondoren. Beste bat 32 urtekoa, bost-garren etxe bizitza batetik lurrera erorita. Ta beste bat 22 urtekoa, bere auto edo berebillarekin bazterra jo-ta.

Esan leike orrelako gertaerakin, ardoak eta drogak zer ikusi aundia dutela?

Ta azkenik laugarren eriotza, irurogei ta amabost urteko beste gizakume bat ere il zen, ta au ibaian ito-ta.



Era bat lotsagarria azkeneko urte auetan gertatzen dena; anai-kor pesta-giro atsegin batean igaro bearrean, politika ari dira sartzten, pestaren kalterako.

Orrelako jokabide okerra ikusirik, Balduz Alkatea onela mintzatu zen: «Emendik aurrera, orrelako egoeran aurrean, Iruñarrak bildurtuta ixillik egon bearrean, zutik jarrita aurpegia emanez, politika-zale oiei, ixil arazten ez ba'diote, «Riau-Riau» ibillaldia bukatu egingo da, erri-agintariak aserretuta etxera joango diralako.

Gauza bat da jai-giroa ta egitazko askatasuna, ta beste gauza ezberdiña ta onartu eziñekoa, pestetan jai-giroa ondatuz, «ETA»ren aldeko politikieriaz. Ez dakit, giro-txar orren sortzalleak kanpotarrak dira edo ez, bañan bertakoak ere errudunak dira, ekintz ta jokabide oker orren aurrean, ixillik ta eskuak patrikan sartuta gelditzen ba'dira, ezertxo ere egin gabe. Bi azkeneko urte auetan egoera lotsagarri ori ikusi dugu, ta azkenekoa izango da aurtengoa, ba urrengo txandan, orrelako giro zatarras asi bezin laixter, dana utzi ta etxera joango gera «Riau-Riau» utzita».



**Begien aurrean, «Sanfermiñetako» irudi bat polita, benetan ederrenetakoa. Anima ta gorputzetako zikinkeriak ari dira Iruña'ko «Jaiak» itsusitzen; baiña argazki ortan ez dago ezer itsusirik Ori da «Iruñ-seme» gazte orren ausardia! Eta zezenaren indarra ta sasoiak! Arrisku aundiko jokua da, baiña garbia, ederra, zuri-gorria. Beti orrela izan da; oraindik ere orrela da. Aurrerakoan ere orrela izan bear luke gure «Jaiak». (MENA arg.)**

# Eguzkia: alde onak eta txarrak (II)

MEDIKU ZAARRA

## «INSOLAZION» EDO EGUZKI ERASANA

Eguzkitan luzaroan ibilliz gero, andik denbora gutxira, buruko min aundi batekin asten da, logale edo logure aundi batekin batera; askotan «fiebre» edo sukarra ere bereala agertzen da, ta eguzki-erasan ori indartsu agertzen denean, «convulsiones» edo gorputz-dardarak ere an ikusten dira. Dardara oiek azaltzen direnean, erne ibilli bearra izaten da, «meningitis» gaitza ere orrelakoxea izaten bait da, ta gaitz au oso arrixku aundikoa dela, denek gogoan dugu; beraz, al den lasterrena argi ta ta garbi berezi bearra izaten da, zein eratako dardarak diren, gerora beranduegi ibilli ez gaitezen, bizia bera ere jokoan arkitzen bait da.

Dardarez dagoen gaxo baten aurrean, eguzkitan egon berria dela jakinez gero, onek asko errexten du, zein eratako dardarren aurrean arkitzen garen jabetzeko.

Eguzki-erasanaren ekintza dela ikusitakoan, ez da geyegi estutu bearrik, gaxo-aldi ori bere onera ekartzera ez bait da zaila izaten.

## TA ZER EGIN EGUZKI-ERASANAREN AURREAN?

Naikoa izaten da, zapi busti ta otz bat bekoki edo kopetean jartzea, ta buruko miña arintzeko dauzka-gun edozein sendagai artzea; ta dardarak bere onera ekartzeko ere, sendadadagaglleek badakite bereala baretzen; ta era bat sendatu arte ixillik eta illunpean euki.

Orrelako neurri batzuk artzea naikoa izaten da geienetan, ordu gutxi barru era bat bere onera etorri-ta ikusteko.

Gaur egun, «valium» inyezioa odol zañean sartzea naikoa izaten da, dardar guztiak era bat baretzeko.

## AZAL-ERRETZEAK.

Asieran, azal gorritze bat besterik ez da agertzen, ta azal ori bero-bero arkitzen da; eguzkitan ibilli ta andik lau edo amalau ordura nabarmentzen da gorritze ori. Ala ere badira zenbait azal zurikoak, ta oiek lasterrago gorritzen dira ta oso nabarmen gañera.

Azalaren gorritzea besterik ez denean, arin-arin egun pare batean, errez, beste gabe izkututzen da; baiñan ala ere, azaleko «celula» edo azal-kizkin batzuk illik gelditzen dira.

Ta eguzkitan denbora luzeagoan ibilliz gero, orduan beste mailla bateko azal-erretze baten aurrean arkituko gara, «celula» edo azal-kizkin geiago geldituko bait dira il-da. Ta orduan gorritasuna ere nabarmenagoa azaltzen da, ta azala bera ere oso beroago, ta minbera gañera; ta ondoren, bereala agertuko dira, saldaz edo urez betetako babak ere. Orrelako erretzeak agertzen dira, ez mendiz-mendi bat dabillenean, ta bai itsas-bazterreko ondartzetan etzanda geldirik egoten denean. Ta orrelako kalterik ager ez ditezten, nai-ta-naiezkoa izaten da oitu arte, bat-bateko eta luzaroan eguzkitan ez egotea; au da, lenengo egunetan ogei minutu besterik ez, eta urrengo egunetan, egunetik egunera, egonaldiak luzatuz; ortara jokatzu gero, esan bezalako azal-erretzerik ez dira gertatzen.

Gaur egun baditugu krema edo ukendu egokiak, azal-erretze oiek gerta ez ditezten; ta ukendu oien lana auxe izaten da: eguzkiaren «infrarrojo» eta «ultravioleta» diren erraiñuei eustea, gure azalean bere ekintza kaltegarria agertu ez dedin.



## AZALAREN ZAR-ITXURA AURRERATZEA.

Eguzki geiegi artuz gero, aurpegiko azalean batez ere zar-itxura ar-arazten duela agerian dago; urteak eta zardadeak egiten duten lan bera egiten du eguzkiak, azalaren gazte-itxura galdu-araziz.

Eguzkiaren ekintza kaltegarri onen berri ongi aski dakite sendagilleek, baiñan ezjakin asko daude gure artean, bestela ez genituzke ikusiko ainbeste ta ainbeste gizakume ordu-luzetan eguzkitan etzanda.

Azalaren zar-itxura, batez ere aurpegian agertzen da, ta azal ori illunduta, lodituta ta zimurtuta ikusten da, berezko biguntasuna gogortasun batean biurturik, urteetan sartu ta zartzaroak egin oi duen lana aurreratuz; ta gazte batzuen azalak orrelakoxeak agertzen dira, moda delata, beren gain eguzkiaren kaltea daramatela.

Gaurko azterketak adierazten dute, azalaren baitan, zein nolako kalteak egiten ditun eguzkiak. Alde batetik, «celula» edo gure soñeko azal-kizkiñak illak agertzen dira azala eguzkiak erretakoan; eta, an inguruan, arkitzen diren odol-zain me-meak ere ondatura gelditzen dira. Ta gertaera oiek nai-ta-ez kanpotik ikusten dugun azala bera ere aldatua arkitu bear, era bat zar-itxura artutako azala, naiz oraindik gaztea izan.

Eta azalaren erretze ortan, gorridunak eta gexalaz betetako babaz gañera, geiegi eguzkitan egonez gero, baita ultzera edo zauriak agertu oi dira; batez ere, artariko joera berezia edo alerjidunak izanez gero, eta baita ere zenbait antibiotiko edo tranquilizante edo patxada-emalle sendagaiak artzen direnean.



# BOLIBAR ASKATZAILLEA

ASTEKARI

Bolibar'tar Ximun, Amerike'tako errialde askoren askatzaillea, Bizkai'ko Bolibar auzokoa zen jatorriz. Aurten dira berreun urte, Karakas'en jaio zela.

Bolibia, Benezuela, Peru, Ekua-dor, Panama ta Kolonbia nazioek, beren Askatailletzat daukate. Eta oietako errialde bakoitzak beren «Aberriaren Aita» deitzen diote. Ospaketa aundiak egin dituzte Amerike'tako errialde aundi aietan.

Aurreko alean esanik dagoenez, Garaikoetxea Lendakaria ere ibilli zen Benezuela'n eta geiagotan, besteak beste, Bolibar'en ospakizunetan.

Gero baita España'ko Errege Juan Karlos ere ibillia da bere emaztearekin Karakas'eko omenaldi aundian. An ziren Bolibia, Kolonbia, Peru, Panama ta geiagotako Ordezkarriak ere.

Euskalerrri'ko azken-gudatean izan zen gudari-talde bat, «Simon Bolibar Batalloia» izenekoa, Estornes Lasa'tar Jose naparra buruzagi zuelarik. Batalloi ontatik bizi diren zenbait gudari batzartu dira aurten eta egin dute Bolibar'en omenezko ospaketa.



Ximun Bolibar, jatorriz bizkaitarra

Garaikoetxea Lendakaria ta Euskalerrri'ko «Sociedad Bolivariana» delakoaren Zuzendaria ere izan dira Bizkai'ko Bolibar auzoan oroi-garri bat ipintzen.

Aingerua ez zen, noski, Ximun Bolibar; baiña ekintzaille aundia bai izan zen. Bere jatorria, Euskalerrrikoa zuen: ain zuzen ere, buru-

jabetza ta askatasunen arrialdea den Bizkai'koa. Zenbat ibilli ta borroka egin bear izan zituen, ez dago esaterik. Eta guztiak, Amerike'tako errialdeak bere buruen jabe egiteko asmotan.

An aietan agintzen zutenak eta ango lurraldeak menpean zeuzkatena, espaiarrak ziren. Toki askotan borrokatu ta menperatu zituen Bolibar'ek. Azkenean esku-bide osoko nazio ta estadu biurtzea lortu zien, goian aipaturiko errialde oiei guztiei.

Begi zorrotza ta ausardi aundia izan zituen, España'ren agintepetik askatzean, Ipar-Amerika'ren loturapera sartu gabe zaintzeko. Gaur bertan ez al daude errialde aiek arrisku bikoitzean? Ipar-Amerika'ren loturapetik askatu eziñean jarraitzeko arriskua batetik; eta, Iparrekoen loturak austean, Sortaldekoen lotura makurragoetan lotuta gelditzeko arriskuan bestetik.

Kuba'ko askatzaille izan zen Jose Martí aundiak, Bolibar'i buruz esan zuena, esan dezakegu gaur ere: «Egin bear aundiak dauzka oraindik Bolibar'ek Ameriketa'n».

# KATALUNIA: Jordi Pujol Leendakariak esan

ASTEKARI



Jordi Pujol Jauna, Katalunia'ko Leendakaria. (EFE arg.)

Denbora asko ez dela, Ikustirratian edo Telebisioan agertu zen Katalunia'ko buruzagi txit argia den Jordi Pujol. Estadu bat beraren barruan dabillen autonomi-

borrokan, baretasuna zabaldu zuten Pujol'en itz egoki aiek.

Gogoan euki bearreko gauzak esan zituen:

«**Politika-arazoen gaiñetik dago Katalunia'ren izaera. Politika-maillakoa baiño leen, kultura-arazoa da; biotzeko sentipenen eta nortasunaren arazoa ere bai. Katalunia'ko abertzaletasunean ez dago España'ren aurkako zatiketarik. Estaduaren eta Generalitat'en astean, elkar-laneko giroa sortu nai dugu; ez-berdintasunak badaude gure ta Gobernuaren artean, eta sakonak gaiñera; baiña konpontzen saiatu bear. Kezkarik aski badaukat, baiña baita itxaropena ere etorkizunari begira».**

Beste gauza geiagoren artean, Katalunia'ko kulturak mundu zabalera irekitasuna daukala esan zuen, ain zuzen ere, Miró, Dalí, Ca-

ballé, Gaudí, Tapies eta Casals bitarteko direla.

Ala ere Katalunia'ko kulturak zailtasun aundiak dauzkala, aldamenetako errialde aundien artean, jende gutxiko giza-taldea delako:

«**Eta orrela, esan zuen, izkuntza aundi ta indartsuen ondoan, txiki gelditzen da. Gaurko munduan ain berdintzaille den Lebiatan edo mamutzar aundiaren aurrean, erri ta izkuntza txikiak oso bearrezkoak dira, gero ta bearrezkoago dira gaiñera».**

Nazio zer den ere argi ta garbi adierazi zuen Pujol jaunak, baiña arazo au ulertzen oso zaila da betiko espaiñolista sutsuentzat.

Katalunia'ren indarra ta balioa, eta bere nortasuna, egia esateko, beren errian daude tinkaturik. Eta izkuntza dute beren balio ta bereiztasun guztien ardatza.

# BERTS LARIA

## Hemingway

ITXARO BORDA

eta ni



Hemingway zaharrak,  
«Txoko» ostatuko mahain gaineko  
paperrezko tela zurian,  
bere izen ohoratua,  
Txina'ko enkre beltzez,  
idatzi zuen;  
gero, bakarrik lagunak utzirik,  
Gaztelu'ko Plaza'ren erdian  
lokartu zen,  
pobreen eta mozkorren artean.  
Hemingway aberatsak  
pobreak eta mozkorrak  
asko maite zituen.  
Zezenen aldareari hurbil  
lruña'tarrek harri tailu bat  
eraiki zioten,  
«Fiesta» liburuaren hostoetan  
lruña'ren omena  
yankitarren herrian  
ongi zabaldu baitzuen.  
Eta nik,  
Itxaro Borda'k,  
Hemingway bezainbat egingo dut  
Euskal Herri'ko plazetan  
«San Fermiñak» goraiatzeko.

Hik, gure ametsen lruña,  
erdaldun jakintsunen  
eta politikoen ahoetan  
ez dun euskaldun izenik merezi;  
bidegabezko zuzendariak  
zergatik segitu hituen?  
Hi ere, alta, osotasun batean  
galtzeko sortu hintzen.  
Hire patroï saïndua  
gazelartu zain,  
ez dun gehiago  
ostatuetan  
karriketan  
euskararik entzuten.  
Noiz zutituko dira giganteak  
eta buruhandiak  
lruña'ko euskalduneri gerorako  
hildoak irekitzeko?

Afrika'ko eta Asia'ko  
gizon-emazte oparoak

urrezko jantzitan,  
oldar ditezela  
aurrean dituzten  
altzeiruzko tankeen  
eta  
kartzeletako burdinen  
hausteko...  
Hausteko  
izatearen beldur samin hura  
oldar ditezela!  
lruña, ez ditun hire xenderak  
«Franco Abenida»'n zehar  
galdu behar.  
Eta nik,  
Itxaro Borda'k,  
Hemingway bezainbat egingo dinat,  
hire arbasoen ontasunak  
eskura ditzanan berriro!

Nafarroa, atzo,  
galtzaleen orroak aditu ditinat  
lruña'ko karriketan,  
Amaiur'en erori hintzen,  
eta gu Errepublikak egunean  
desegin gintunan;  
Orbaizeta'ko harmategian oraino  
suak bizirik dagotzin,  
Etxarri-Aranaz'en borrokalari aski  
gudukarako prest direnak baditun,  
Amikuz'en eta Garazi'n poetak  
hire izena kantatzen dutenak,  
Uxue'n euskaldun berriak,  
Baigorri'n gaiteroak  
eta  
Tafalla'n joteroak!  
Barde'etako lur horailetara,  
egun batez,  
iparraldeko haizeak bultzatu  
hedoi euritsuak ixuriko ditun.

Nik, Itxaro Borda'k,  
nafatar eta euskaldun naizenak,  
Hemingway baino gehiago  
egingo dinat,  
nere lurrean lanean ari diren  
gizon-emazteeri,  
zerbait esperantza emateko...

Baina, gaur jaiak ditun:  
San Ferminen opari zakarra  
urtero betikotasunean  
urtzen zain  
mila koloretako jantzietan,  
txarrangen soinu airosetan,  
entzierroko lasterretan,  
azken izarren argietan,  
txokolate txurroetan  
bero eta gurintsuetan,  
lo beharrez dabilztan  
begi gorrituetan,  
«Pobre de mi» hitzetan,  
mozkorrek goitigin janarietan,  
eta horma abertasek duten  
pixa urrin nazkagarrietan  
urtzen zain,  
lruña,  
hire betikotasuna!  
Nik, Itxaro Borda'k,  
Hemingway ikusi ez zuena  
azalduko dinat, hire izena  
buru zokoetan amets urruti  
bat baizik ez dadin izan!

Ordea jaiak bukatu zitunan,  
eta entzierroan hil zezenen  
haragi gordina arranoek  
jango dine;  
nik, Itxaro Borda'k,  
hire festetan lurraren  
maitasun berri bat ezagutu ninan;  
ai, lruña,  
nere bihotzekoa ote hiza?

Hemingway zaharrak,  
«Txoko» ostatuko mahain gainean  
ahantzi zuen luma ospetsuarekin,  
poema luze honen azpian,  
nik, Itxaro Borda'k, nere izena  
odolezko  
eta sufrimenduzko enkreaz  
jarriko dut azkenean...

# Atano anayak: Joxemari

## EGI'TAR BI

BIANA'ko PRINTZEA'aren Ekain'eko zenbakian Juan Mari Atano izan zen azertu genduen bertsolaria, Atano pelotari ospetsuen aita. Gaurko zenbaki ontan, aren anaia, Joxemari, izango dugu gure illeroko jolas-aldi onen gai.

Ez genduen orduan esan, bi anai bertsolari auen abizena Juaristi zela. Ez zen bearrezkoa ere, Atano pelotarien izenak eta abizena mundu guztiak ezagutzen bait ditu Euskalerrria'n. Bertsolariak, Juaristi Narbaiza ziren; pelotariak, berriz, Juaristi Mendizabal.

Bederatzi senide izan ziren Juan Mari eta Joxemari. Garai aietako sendiak orrelakoak izaten ziren, ugariak.

Bertsogintzan Juan Mari txorrotxagoa, bertsolariagoa, agertu bazitzaigun ere, bere anaia Joxemari, bertsolari izatez utzi gabe, dotoreagoa azaltzen zaigu. Ala ta guztiz, oso-osoa bertsolaria da; bertsolarien maillan ari izaten da beti. Ez da Bilintx edo Enbeita bezala, eta maiz Pellomari Otaño bezala, olerkarien mailletara sartzen.

Joxemari Atano'ren izkera, bertsolariena da: erriko jendeak perrietan, tabernetan eta lantegietan erabiltzen duena; garbitasun-zaletasunaren kezkarik gabeko izkera; erdal-itzez jositakoa, baiña joskera bikaiñekoa; erri-euskera jatorra.

Gauzak esateko era, berdiñ: bertsolariena da; edergaillu uts besterik ez diren itzak aipatu ere egin gabe, esan bearra dena esateko bear-bearrekoak direnak bakarrik erabiltzen dituena.

Idurimena ere bertsolarien eran darabilki Joxemari'k: saltoka, gai batetik bestera kolpean paseaz; errekarren baztar batetik bestera zubirik gabe, salto egiñez pasako ba'litz bezala.

Olerkaria ez da sekulan orrela pasako gai batetik bestera. Olerkaria, zubigintzan ari izaten da beti; alor batetik bestera igarotzeko zubiak, eta zubi apaiñak egiten. Bertsolariak ez die zubiei maitasunik; ez du zubi bearrik; erbi jostalaria bezala airean igarotzen

da alor batetik bestera, gutxiena uste den unean eta gutxiena uste den tokitik salto arin bat egiñez.

Olerkariak eskutik eramane oi du bere irakurlea edo entzulea. Gai batetik bestera igarotzean, azalpen edo explikazio guztiak emango dizkio. Bertsolariak, berriz, ez dio entzuleari azalpenik ematen. Abixurik ere eman gabe, entzuleak gutxiena uste duenean, gai batetik bestera igaroko zaio, gero gai ontatik lengo artara, eta andik beste batera, ostera lengora itzultzeko bear bada. Txori egalaria zugaitz batetik bestera ibiltzen den eran ibilli oi da bertsolariaren irudimena.

Esan dugu Joxemari ez dela bat-bateratzalle bezala ezaguna. Ala ere bat batera, edo itzetik ortzera, bertsoak botatzen bazekien. Bertsolari guztiak jakiten dute ori. Ikusi itzezu Aita Zabala'k jaso aal izan dituen bat-bateko bertso auk.

Josemari'k itz auekin konbidatzen du bakaltzera adiskide zar bat:

**Gure erriko pestak, Birjiña Aguztukoz; gonbiratuzten zaitut pozik eta gustoz;**

**baita tripa bete're ogi edo artoz. Eun ortan bazkaltzera gure etxera atoz.**

Ez zen itxuraz azkoitiarra adiskide zar ura; eta gaiñera, ogi edo artozko betekada otordu legorregia iruditu zitzaion, Azkoiti'raiño etortzeko. Ta bera ere bertsolaria bait zen, au kantatuz erantzun zion gonbidatzalleari:

**Asko ixtimatzen det zure konbitia; ez nuke nai iñori penik ematia; pentsauko baldin ba'nu aruntz juatia... Bazkari bateatik biaje luzia!**

Naiz adiskide zarrak explikaziorik eman ez, naiz ogi-artozko otordu ura otordu motzegia iduritzen zitzaiola esan ez, edierki ulertu zion Joxemari'k eta kantu onekin eman zion erantzuna:

**Ez zaitugu utziko bakarra emanda: gosari, bazkaria, eta merienda; gero apaldutzeko ere zerbait on da: eltzekondo beroa zopa bi egin da.**

Esan dugun bezala, Joxemari'ren bertso-paperen gaiak erlijio-gaiak izan ziren beti. Guk, irakurleak Joxemari'ren bertsoen tankera, «estiloa» nolakoa zen jakin dezan, aren bertso batzuk jarriko ditugu gaur emen. Ta bertso-paperetan milla inprenta-uts sartzen bait dira, itz bat edo beste aldatuko dugu zentzua argitzearren.



**Gure mendeko asieran Azkoiti'ko kaleetan, alaiki lan egiten zuten ezpartingille ta abarkalariak; aiek bezala Atano bertsolariak**

# Itziar'ko Ama Birjiñari ikustaldia

Oñez joan ziren azkoitiarrak erromes, beren erritik Itziar'eraíño. Ogeitabost kilometroko ibillaldia egongo da, gutxienez, Azkoiti'tik Itziar'era. Joan da etorri, oiñez egin zuten azkoitiarrek bide ori guzia. Azpeiti eta Zestona barrena egindako joan-etorri ori eta Itziar'ko prozesio eta gertakizunak abesten ditu Joxemari'k bertso auetan. Ikus asiera:

JOSE MARI ATANO

Komeni da ta jartzera nua bertso berri bat edo bi, grazia on bat eskatzen diot Maria Santisimari; Itziar'era juana izan da pelegriua ugari; pasadizuak nola diraden ditut esplikatu nai.

Lendabiziko arratsaldian erteera zan asia, amabietan juntatu giñan elizan jente guzia, gendualako emendik ara oso bidaje luzia; bitarte orretan izan genduen Jaungoikuaren grazia.

Bazkal onduan atera giñan; illuntzian allegatu; sarrera ona egin genduen musikaz eta kantatu; itziartarrak kanpaiak juaz giñuzten errebitu; Ama Birjiñak gure pausuak goguan izango ditu.

Azkoitiarrak egin genduen lendabiziko sarrera, jente guzia zuzendu eta Ama Birjiñan aurrera; San Franzisko'ren seme on batek pulpitutikan izkera ongi etorria egin ziguten, nunbait mereziak gera.

Ama Birjiña bisitatua atera giñan kanpora, alojatzeko paraje billa juateko deskansatzera; goizian jaiki ta bereala sakramentua artzera, pelegriuen eguna zan da Maria alabatzera.

Egun orretan seiretan gendun komunio jenerala, iru apaizek Jauna partitzen egin zuten egiñala; enteratu naiz bi milla eta zazpireunen bat giñala; Ama Birjiñak pensatuko du bigutzen asi gerala.

Elizatik an atera eta etxera jente guzia, Birjiña Amari eskaturikan laguntza eta grazia; Bidian bera akompañatzen kabildu ta justizia...; Baguaz orain, eskerrak milla, agur Itziar maitia.

Itziartarrei agur eginda onuntz giñan abantatu; Zestua'n ere sartu giñan da Salbe ederra kantatu. Azkoitiarrak bidera irten da giñuzten errebitu; gure Artzaiak egunen baten oraindak ordainduko'itu.

Amaseigarren bertsuarekin desperida det asia; iñor jakin nai duanik ba'da, Joxemari det grazia. Eskerrak milla; portatu dira kabildu ta justizia; faltarik ba'det, barkatu neri utsegin dedan guzia.

## ANDREGAIARENA

Entzun orain, iraurle, Joxemari'ren illoba eta Juan Mari'ren seme zen Balentin'ek, Atano Bosgarrenak, bere andregai bateri jarritako bertso parragarri auek.

Balentin onen izengoitia «Txakala» omen zen, eta bere lengusu batena, «Apa». Biak agertzen dira bertso auetan Ondamendi auzora andregai billa joanak. Bigurite izeneko beste auzo batean egin omen zituzten neska-mutillek alkarrekin asteko tratua. Balentin'ek aipatzen digun Juliana, monja sartu omen zen azkenean. Bertso auek zortziko txikian eratuak dira, azkenekoa izan ezik; au, zortziko nagusian dago. Azkeneko ontan beste neskatil bat agertzen zaigu: Bentako Luixa, itxuraz, erri guztitan izan oi den xaltxa-neska.

Andregai badaukat nere gustokua, lenengo itzetikan agindutakua; Juliana du izena, neskatxa majua, orrek izan biar du Ondamendi'kua.

Oleta'tik etxera neskatxa banakin, ezkontzeko asmuu laurok alkarrekin, ni Juliana'kin da «Apa Pantxika'kin, Ondamendi'kuk dira nai duenak jakin.

Oleta'n kurioso gendun meriendatu, beratziña errial gañera pagatu;

atzian gelditu ta gerrikua galdu, gizon batek billau ta zion entregatu.



Andregaiakin leno nuen pasiatzen; asarrauko zanikan ez nuan pentsatzen; ikusi ninduanian pixka bat eraten, geroztikan itzikan ez dit nei egiten.

Bigurite'n genduan tratua zerratu, andik jai gutxi barru ein da asarretu; ni baño obiagua dubela topatu; Juliana, al badezu aberatsa artu.

Ta seigarrengoa puntu luzean:

Ondamendi'ko Juliana'kin nebillen ezkontzeko; esaten ziran Luixa Bentakok ezer ez sinistutzeko, belarri baten sartzen zirana, bestetik ateratzeko; alaba ederra ein zuben amak «Txakala» engañatzeko.

BALENTIN ATANO

## SANFERMINAK

Danok badegu esan-gaien bat,  
alako edo olako;  
nik ere mintza nai nuke zer bait,  
ortan asi naizelako:  
larogeieta iruko yaiak  
Iruñan'n diradelako,  
Zaindariaren bedeinkapena  
guztionezko dalako,  
«San Premin beltza» pesta-zalea  
bezin alaia zalako.

G. ALBIZU

## Gauzak eta guraria

Txoriaren mintzoa, lorearena  
goiz ta gauz sartzen zaigunean,  
sentimenez ta biotz barrena  
gauzaen izantasan berean  
mundu arruntaren edermena  
ixil-mintzozko ele-melean  
begipetuz bakoitzaren sena.

Goizeko txintada, abarrotsa,  
illuntzez datorren illargiaren  
zurbil geldirozko gorakuntza,  
gau-giro argi ta gentzatsuaren  
izar dirdirazko goi-zolaren  
gelgarritzko betiraundar dantza...  
Zein ikusgarri atsegiña den!

Bizitzaz kolkoa aberasten  
zait ta benetako ondasunez,  
gauzaen izpiñoak altxortzen  
ari naiz euren zillar ta urrez  
ari bat, beste bat artuz gero,  
gogotasun sendoz, norberaren  
etorkizun bidea euntzeko  
maitasunezko urre, zillarrez.

MUNIATEGI'TAR SABIN

## «al zuan eran lagundu...»

Orain urtebete joan zitzaigun adiskide  
aundi bat, gure aldizkaria pozik irakurtzen  
zuen ta laguntzeko beti prest zegoena.

Gipuzkoa'ko Errezil'en jaioa, Uzkudun  
famatuaren illoba. Ura boxeolari gogorra;  
gurea, berriz, euskal apaiz kontsolagarria...  
Nolako gizona, nolako adiskidea, nolako  
apaiza!

Gure adiskide jatorraren argazkiaren on-  
doan, orra or aren nortasuna adierazten du-  
ten bertsoak.

Goian zaude, On Luis maitea! Zuk maiteki  
esaten zenidan:



† Luis Galarraga Uzkudun,  
apeza

MARTXELIÑO

Joxe Mari ta Manuela'ren  
amar semetan gaztena;  
iru senide lenik juanak  
aita ta ama urrena.  
Apaiz lanetan urte askuan,  
biotza galdu azkena.  
Gaxo-etxetik aldegin digu  
maite zuan Aitagana.

Gaztetan oso kantari bazan,  
gero eziñak mututu;  
lan ugaritan saiatu ondoren,  
danak nai-ta-ez utzi ditu.  
Inor larririk ba'zetorkion  
al zuan eran lagundu...  
Sari Emalle zeran, Jaun ona,  
zure etxean ar-zazu.

Bizia ez zun utsik uzteko,  
zer-eginez bete gabe:  
Eliz-Ama ta Euskalerrria  
biotz-biotzetik maite;  
saiatu ere bien artean  
kemenak erantzun arte.  
Emen ustuak ditun almenak,  
Jauna, zorionez bete!

## ERREKAN ERTZEAN

Gure erriko erreka  
alaiez jantzia,  
nundik zatoz ain txukun,  
nun zure urbegia...?  
Batzuetan baretsu,  
erdi logalian;  
bestetan, arroskoa  
zure bidaldian;  
nolabait errekatxo  
bazoaz bidean,  
ibaira, itxasora  
gertasun onian.

Zure ertzean nago  
pozik eserita,  
pentsamentuz beterik  
bizian jarrita,  
oroimenez gaindurik  
irudiz beteta.  
Zure urak bezela,  
doazte itxasora  
nere pensamentuak...  
Nora joaten dira...?  
Nora, zer aldetara,  
aizera, zerura...?

URANGA'tar JON



# GAUZA BITXIAK


## AITA SANTUA «MOSKU ZIRKOA» IKUSTEN

Arriturik gelditu gara argazki au ikusita. Beti bu-ruauste ta eginkizun aundiak, astunak eta latzak, ugari dituela uste dugu.

Erroma'ra etorri zen «Mosku Zirkoa»; aien nai bizia eta aren ongi-naia, eta orra or arrera ona. Eta Batikano Elizaren aurrean gertakizun ikusgarria:

Errusi'ko artzaren dantza, Aita Santuaren biotzeko irriparra, Errusi aundian bizi diren kristauei Aita baten agurra ta bedeinkazioa bidaltzeko garaia...

Eta guzientzat, eredu ederra ere: beti lanpetuta aserre-bizian ibilli gabe, noizik beinka aldatzeko. «Ume antzera biurtu bearra da».



## 135 KILO GALDU DITUEN EMAKUMEA

Beste ale batean ikusiko zuten gure irakurleek, emakume lodi ta gizen batzuen argazkia. Gure «Mediku zaarra» idazlearen aolkuei kasorik ez zieten egiten aiek, beren lodian jarraituz.

Ona emen argazkian Ipar-Ameriketa'ko emakume bat: Marsha Scott. Bere lan-tokia galduko ez ba'zuen, kiloak galdu bear izan

ditu. Eta bai galdu ere! Leen 200 kilo aundi zituenak, 22 illabeteren buruan, 135 kilo galdu ditu. Garbi ageri da, leengo galtza aundiei ba-giratuta.


Gure aldizkari apal au irakurri ote du neskatxa orrek? Jakiña, gure aldizkaria Ipar-Ameriketa'ra joaten bait da...

# IRUN'GO TA ONDARRABI'KO «ALARDE» JAIAK

OÑATIBIA'tar DUNIXI



Jaialdiak dira oraingo «alardeak» (I. LINAZASORO arg.)



Ondarrabi'ko arresia, ainbestetan anai-arteko burruketan lekuko

Bi erri oietan, antziña izandako gudu-borroka batzuen oroigarri, urtero egiten dituzte bertakoek alako jai ta erakusketa berezi batzuk, ain zuzen ere gudu-tresnak daramazkitela.

Irun'en 1523'gn. urtean asi ziren jaialdiak ospatze. Ondarrabi'n, berriz, ez ziren asi 1639'garrenera arte.

Gudu-borroka aiiek, tamalez, euskaldunen artean sortutakoak ziren, benetan anai-artekoak. Ala izan zirela adierazteko, naikoa da kondairako agiriak ikustea. Eta ortarako, jo dezagun Naparroa aldera, ango gertaerak zer-ikusita aundia dutenak bait dira emengoekin.

Gudaldi negargarri batzuen ondoren, gure senide naparrak beren askatasuna galduta gertatu ziren.

Iruña'n 1521'go Loraila'ren 21'ean zauriturik erori zen Loiola'ko Iñigo. Eta borroka artan beste napar zintzo askoren artean, Xabier'ko Franzisko'ren anaiak eta senitartekoak ari ziren beste aldean, Naparroa'ren aldean.

Alde batetik eta bestetik, euskaldunak zebiltzen borrokan, baiña batzuk Frantzi'ko gudarostearen alde ta besteak Kastilla'koaren alde. Bein geiagotan Euskalerrria izan zen galtzaille, etsai aundi bien artean.

Iruña'koa gaizki gertatu zen naparrentzat eta igeska joan ziren atzerritarrak mugaz bestaldera; baiña napar ausarta batzuk Amaiur'ko gazteluan sartu ziren. Baztan'go errixka dugun Amaiur'ko menditxo batean zegoen gaztelua ta antxe iraun zuten kementsu, kastillatarren erasoari aurpegi emanez.

Kastilla'ko buruzagi bat, «Conde de Miranda» deitua, Amaiur'koen kemena ikusita, zearo arriturik mintzatu zen. Orduan, gaztelarrei saldutako napar

batek onela erantzun zion: «Ez arritu, jauna, oiek guztiak naparrak izanik».

Napar gudariak Ondarrabi'ko gaztelura etorri ziren. Eta Ondarrabi'n iraun zuten iru urtez, 1521-1524 bitartean. Gogoan izan, Naparroa'ko ikurriña azkenengo aldiz Ondarrabi'n egon zela askatasun osoz eta gorri-gorri agerian.

Amaiur'ko gaztelua galduta frantsek eta naparrek Ondarrabi'ra jo zuten; eta orren arresia ondo inguratuz geroz, amabi agunen barru, an sartu ziren, Naparroa'ko Errege'ren izenean. Napartar gudarien artean zeuden Yatsu'ko Mikel eta Yon, Xabier Gaztelu'ko semeak, Frantzisko Santuaren anaiak.

Beltran de la Cueva Jauna, Kastilla'ko soldaduen buruzagia, asi zen Ondarrabi inguratzen, 1523'gn. urtean. Gañera, frantsak eta naparrak menperatu ziren urte orren Ekainilla'ren 30'ean, San Martzial mendian. Eta milla gizonekin zetorren Mr. Chanfarron kaskoiña, Irun'go aitzaki batetan erori, ta Pz. de Azkue Yon'ek lepoa moztu zion. Ortik bertso mingarri ura:

**Mosieur Chafarron, Jaun aundia,  
Irun kalian datza illa.**

Kastilla'ko kañoi suaren pean, naparrek zabaldu bear zituzten Ondarrabi'ko atreak. Eta kastillatarrekin sartu ziren 800 arabar, 2200 bizkaitar eta ezin kontatzeko gipuzkoar.

«**Orrelakoetan** -Kanpion'ek nunbait esan bezala-  **nolako poza artzen duen, inpernuan, Cain madarikatuak!**».

Gertaera mingarri aietatik sortuak dira Ondarrabi'ko ta Irun'go «Alarde» deituriko izkilludun edo armazko jaialdi ezagunak. Orain jaialdi alaiak ba'dira ere, beren sorreran, senide arteko borrokatik sortuak ditugu.



## Filipinak



### ORAIN DELA BERROGEITA AMAR URTE

1933'garrengo Uztailla'ren 20'ean ta Olerki-Eguna zela-ta, Urretxu'n ospatu zen Iparragire'tar Joxe Maria'ri egindako omenaldia.

Orduan, Belgika'n bizi zen Etxeberria'tar Patxi Josulagunak artu zuen sari berezia Olerki-Egunean irabazle atera zelako.

Orain dela 50 urte bezalaxe jarraizen du Etxeberria'ta Patxi Josulagunak, naiz Filipinas'ko lurraldeetan mixiolari egon, euskeraren alde. Eta gure aldizkari «PRINCIPE DE VIANA»'n maiz idazten, zerorrek, irakurle, ikusiko duzun bezala. Aunitz urtez!

### ARTO ERREA

Gure gaztetan Euzkadi'ko zelaiak udaberriz ederrak ziran. Alako artasoro bikañak! Eguzki beroaren indarrez soroetako ezeari beltza zala esaten genion. «Goienetxe'ko soroetan artoa beltz dago»; orrela esaten genduan.

Pilipin auetan sail kaxkarrak ere ikusi ditut. Batez ere, axal-axalean purran ereindako sailtxoetan; geienetan mendiegalkalkarretan. Orrela artoarenak zeatzago ikusi nai izaten ditut.

Arto eldu-berria urte osoaren luzean izaten ote duten ez dakit. Galdetuz gero, jakin nezake. Ortarako, ordea, tokiko izkera ongi ia-kin bear. Aurten, lengo Orrille'an, oraindik ere artoa aski azi gabe zegoela iduritzen zitzaidan. Bein, artasoro baten ondora ioatea gertatu zitzaidan. Orduantxe nik ikusi arto zuztarra, an beintzat, ez zala asko azi. Bi buruko ankarik ez nuen ikusi.

Txina'n bai: azkoitiar Etxaniz Koldobika Mirena'ri, baratzen bost buruko zutenak ere ikusi nizkion. Aietxek bai zuztar lodiak eta goruntz txit aziak. Orduan txinatar eta nipondarren arteko gudua genduan, eta bakoitzak, beretzat beintzat, maierakoa osatu bearra genduan. Ukar-laguntzarik inondik ez zitzaigun iristen.

Emen, artoa era askotara ipintzen digute otordurako: bai eguerdiko, naiz aparitarako jatekoetan ere; saldari maiz artiriña naasten.

Bañan, geiena arritu izan nauena arto errea det. Ikatz bizitan erretzen dizute. Alegia, artaburu ondu eldu gabea. Umetan guk esaten genduenez, oraindik esnea darion ale biguñekoa. Arto-erre saltzalleak irian etxarte ertzetan izaten ditugu; antxe kuxkurtuta, erosleak noiz agertuko. Arto-erre zaleak, berriz, aldirietatik datozenak izaten

dituzu maizenik: zerbait saltzera datozenak, eta atsedenaldir ere zerbait berri ikusi bearrez ibiltzen diranak. Ostatueta zerbait artunaiez sartzeko asko bear, eta beren etxera itzuli arteko gosea olaxe itzen.

Arto-errezale aundienak, ikasleak: illa onen amalaugarrena arte oporrak izan dituzte, eta oraintxe dalako saltzalle oriek irabazi politak.

Ontan, garai aietan Euskalerrri'ko iri askotan Udazkenean gaztainerre-saltzalleak izaten genituela gogoratzen zait. Orobat Erroma'n izan nintzanean, Udaberri izan arren gaztain-erre saltzalleak ikusi nituen. Are: Loiola'ko Iñaki deunak gaztain errea txit maite izaten zingun. Nolanai ere orduan etxarteko saltzalleeri erosiz izango zituen.

P. Etxeberri S. J.  
Ilo-Ilo

## Baztan

ELIZONDO'KO JAIAK:

Uztailla'ren 24'an, Santiago bezperan, eguerdiko Ziaurritz'tar Karlos'ek, Elizondo'ko alkateak eman zion su jaien asierako suziriari. Baztan Araneko Errikoetxean, begiratokian eta jai-giroan, an zeu-

den Baztan'go alkate den Iturralde'tar Julio ta kargodunak.

Lenengo dunbatekoaren ondoren, Elizalde'tar Maurizio ta Iriarte'tar Felix Txistulariak asi ziren kalejira jotzen. An zituzten laguntzaille, gizaundiak eta buruaundiak, umetxoan zoramenerako.

«Kalaxka» deritzaion fanfarrea ere an ibilli zen erriko karririk bere doiñuz alaitzen.



Elizondo'ko festetako irudi polita: Erriko Etxea, ongi finkatua; aurpegi garbiko Jiganteak; aurrera joaten den erri zar bat, «Mutil-Dantzak»'ren soñu aundiaren pean... (GABI arg.)

Arratsaldeko zazpiak eta laurde-  
netan, bertako alkatea ta kargodu-  
nak, erriko ikurra ta ikurriñarekin,  
txistulari ta dantzari-txikiak au-  
rrean zituztela, Eliza nagusira joan  
ziren. Jai-bezpera zenez, Salbea ta  
Santiago'ren ereserkia abestu zi-  
tuen Elizondo'ko Abesbatza eza-  
gunak.

Eliza bete-bete jendea: zalan-  
tzarik gabe, beste urteetan baiño  
geiago. Elizkizun ondoren, joate-  
koan bezala, lerroan itzuli ziren  
Erriko-Etxera.

Kontsejupean, erakusketa apaña  
zegoen agerian: Arizmendi, Ape-  
zetxea, Erentxun, Ana Marin, Re-

zola, Soubelet eta Sobrino ertila-  
rien 29 eder-lan bai-zeuden, nork  
ikusiko zai. Baztandarrak dira,  
noski, ertilarri geienak.

Poz betean igaro ditu Elizondo'k  
aurtengo jaiak. Lagungarri ederrak  
izan ditu, Elizondo'ko Abesbatza  
Meza Nagusia abesten eta erriko  
enparantzian «**Mutil-dantza**» ikus-  
garria.

Baztan'go dantza ta beste oitura  
jatorren maitale aundia da, noski,  
Izeta'tar Mariano, gure adiskide  
ezaguna. Eta gure Mariano aundia,  
an agertu zen gazteekin batean

«**Mutil-dantza**» egiten. Arin eta az-  
kar jasotzen zituen oiñak, idazte-  
koan bere luma arin erabiltzen  
duen antzera. Jarrai dezala aurrera  
ere euskaraz idazten eta euskara  
zabaltzen –Jainkoak nai dezala  
beintzat!– Baztan aldean ere bear  
aundia bait dago.

Esan bearrik ez, aizkolariak  
–Mindegia ta Mendizabal–, eta arri-  
jasotzailleak, eta gaiñerako ikus-  
festa ederrak zirela-bide, alaikiro  
ibillia dela Elizondo osoa.

X. X.

## Donostia

### EMEN EZ DAGO PAKERIK

Nere bizi guziko gertakizunak  
ikusita ta jakin ditugunok eta oraindik  
ikusita bear titugunak ikusteko gau-  
denok, naiz'ta bizkarrean urteak  
izan, ez dira txantxetako kontuak.

Gure guda artan pasa-pasaalak,  
erbestietan ibili jo batera ta bestera,  
ezbear ta samintasunak igaro, go-  
seak nabaitu, elkar gorrotozko  
uneak ostindu ta azkenik, gere ustez  
pakea sortu. Baiñan, pakea! Ze itz  
eder ta gozoa dan! Emen ez baidago  
pakerik!

Gero esango degu, gu gizonok,  
emakumeak ez dirala gurekin ber-  
dintzekoak. Eta, auek arrazoiz beti  
deadarka agertuaz, guziok berdina  
gerala. Nere ustez, arrazoi aundia  
daukate, arrazoi ori da gizonok naz-  
piltzaille batzuk besterik ez gerala  
eta emakumeak pake zaleak, ez  
beintzat burruka zailleak. Orregatik  
diot nik, gu gizonok gerala emaku-  
meekin berdindu bear degunok  
aintzat artzeko beren paketasuna.  
Gizonok burrukulari, emakumeak  
pake zale.

Euzkadi'n gertatzen dana ikusita,  
ez ote da negargarria? Beintzat,  
orain urte auetan ez da pasa diran  
berrogeitaka urte aiek bezelakoak.  
Ongi ikusiak giñan alde guzietan eta  
orain batzuk gaitik txarki ikusiak.

Ez zait aztuko il arte, an urrutie-  
tan, Amerika aldean ibildu giña-  
nontzat, bateze, Orinoko ibai aundi  
aietako alboetan, nola bertako bizi-  
lagunak ze poz ta atsegin bizi ziran.  
Aientzat ez zegoen gudarik, gu kan-  
potarrak errezpetatuaz. Gure txindi  
grñiñ gabekoak. Beraz, zer gertatu  
zaigu euskaldunari? Zergatik  
orrenbesteko elkar ezin ikusiak?

## Peru Txiki'ren ateraldiak

Josepa'k Peru Txiki'ri:

–Ni, zu baño lenago iltzen  
ba'naiz, zer egingo dezu gero?

–Zer egingo det? Zuk egingo  
zenukena...

Josepa'k:

–Lotsagabea! Ez zenidan beti  
esaten ez ziñala ezkonduko?

Peru Txiki'k galdetu mutiko  
bateri:

–Nora zoaz katu orrekin?

–Ikastolara.

–Ikastolara katuakin? Zerta-  
rako nai dezu katu?

–Maisuak esan dit, leziua ez  
baldin ba'dakit, saguen kuartoan  
sartuko nautela, ta...

Peru Txiki'ri, bein batean, tre-  
nean gertatu zitzaiona.

Etorri zan billeteak errebisatzen  
duna eta onek esaten zuan:

–Mesedez, billetea! Mesedez,  
billetea!

Peru Txiki'k atera izan zuan  
billetea eta errebisoreari eman;  
onek artu ta bi zulo egin zizkion.

Gero, Peru Txiki'ren aldame-  
nean zegoen praile bateri billetea  
eskatu zion ere. Praileak, patri-  
kan billa, ez zuan billetea atera-  
tzen; azkenean, zerbai atera  
–txartel bat– eta eman zion erre-  
bisoreari; onek, leitu eta esan  
zion:

–Bai, Aita! Nik au badakit,  
baña ikusiko degu Inspektoreak  
zer esango duan...

Inspektorea etorri ta esan  
zuan:

–Bai, Aita. Nik au badakit,  
baña ikusiko degu Inspektore  
Nagusiak zer esango duan...

Ordun, Peru Txiki'k, tente ja-  
rriarik ikusi zuan txartel artan zer  
jarria zan. Jesukristo gure Jauna,  
Gurutzean jarria, zegoen txarte-  
lian, eta azpian:

«**Jesukristo Gure Jaunak  
paatu du gu danongatik**».

Guziak ordea ez dira gaiztoak. Bai  
dira munduan gizon jatorrik, geie-  
nak noski, baiñan, tarteko batzuk  
naiko dira beste geien oiek nazpil-  
tze.

Euskalerria orain berrogeitamar  
urte ezagutu gendunok pentsatuta,  
ta orain ikusita, ze nolakoak geran...  
ez da antzik ere. Ordun euskaldun  
gutxiago ziran eta giñan, orain  
geiago. Geiatasun ori, nundik sortu  
zan guziok dakigun albistea da,  
kanpotik etorri zinanak, emen uga-  
ritu dituztelako artaldeak. Ez nago  
ni oien aurka. Bakoitzak aldun le-  
kuan bizi bear du, norbere etxe ta  
erritik kanpuan, gu ere bizi izandu  
giñan bezela Amerika aldean. An  
daude millaka betiko joanak eta  
Euskalerria zer danik ere ezagutuko  
ez dutenak! Tamalgarria! Oiek gu-  
daren ondorenak dira. Guda guziak  
kalterako dira. Pakea bear degu,  
gorrotorik ez.

E. OZKIN





# KIROLAK

## EUSKAL ARRIJASOZALEAK

Aurtengo Sanpermiñetan, urtero bezala, arrijasozailleak izan ditugu Iruña'ko plazan. Eta baita laisterkariak, aizkolariak eta orrelako beste euskal-kirol edo jokuak ere.

Mintza gaitezen gaur arrijasozailleetaz, besteetaz mintzatuko bait gera beste egunen batean.

Badakizute gure erri-jokuak gure errietako eguneroko eginkizunetarik sortuak direla.

Non eta noiz sortua ote da arrijasoketa?

Esan dezagun lendabizi, arrijasoketa gure mendietako arrobietan sortua dela. Arrobilariek sortua. Arrobilariek eta argiñek.

Orain dela seireun urte, borroka eta nasketa aundiak izan ziren Euskalerrri guzian; oñaztarrak ganboatarren aurka; geroago, agramontesak beamontesei aginka. Borroka eta odolketak izugarriak, uri-erretzeak, etxe-porrokatzeak.

Gudate aietan bear bearrezkoak ziren errientzat arresi sendo bikaiñak eta gaztelu tinko ausikaitzak, barruan bizi ziren jendeak etsai amorratuen erasoetatik babesteko.

Baiña arresi edo muraila oiek eta gaztelu galantak egiteko naita-naiezkoak ziren arri gogor landu aundiak.

Eta arriak nondik datozten badakizute: arrobietatik. Baiña, bai al dakizute garai zaar aietan arrobilanak nola egiten ziren? Orduan ez bait zen dinamitarik! Ezta errauts edo polborarik ere!


Arkaitzari arrikozkor aundiak izotzaren bidez kentzen zitzaizkion. Ortarako palankalariek arkaitza barrentzen zuten, bertan zulo sakonak egiñez. Zulo aiek urez betetzen ziren. Eta gaeuz, izotzak ur ura izoztean, arkaitza printzatzan zuen, izotzak uraren tamaña aunditu egiten bait du.

Printzaketa aren bidez, arkaitzetik bereizirik gelditzen ziren arri tantai aiek andik jasotzeko, makiñarik ez zen. Arrijasozailleen besoek egiten zuten lan ura.

Eta leenago, orain dela iru milla eta lau milla urte egindako trikuarri

edo dolmenak ere, arrijasozailleen eginkizunak dira. Taldean, askoren artean, eginketa edo mobimentu neurtuan egindako lanak. Ekipoan. Dooperativa-ekintzan.

Antziñako arrijasozailleen ondorengoak dira gaurko Perurena eta amabost urteko Mikeltxo Saralegi, leizarrak biak. Perurena'ren markak ezagunak dira. Mikeltxo'k lau arroako arria, lau aldiz, jaso zuen iru minutuko epean. Ez dago gaizki, alajaña, amabost urteko mutiko batentzat. Zorionak, eta txalo beroak zuretzat, Mikeltxo!



Iruña'ko Zezen-Plazan, Perurena'k arria jaso esku batez

## Baita Muskaria'n ere

Muskaria, erderaz, Tudela da. Ba, Muskaria'n ere, «Santanaz», euskal-kirolak izan dituzte. Kirol oiek gure-gureak direla-ta, an ere «Beterri-Taldeak» euskal-kirol oienganako zaletasuna piztuarazi nai omen du ba! Ortarako, Perunena arrijasozaillea, Erdozia, Narzabal eta Gorriti aizkolariak eraman dituzte.

Jende asko egon omen zen jokalaria auei begira, eta atsegin gozoz egon omen zen gaiñera. Zorionak, «Beterri» taldekoei.

Ori duk, ori, gure erriaren alde lan egitea. Aurrera mutillak!



### AMEKA DOMIÑA NAPARREI ESPAÑI'KO ATLETISMO JOLASKETAN


Anoeta'n izana den Espai'ko Txapelketan, Gregoria Ferrer gelditu da garaillea 400 metroko lasterketan: urrezko domiña.

Azagai edo jabalinaren jaurtikitzean, J. M.ª Etxeberria'k irabazi du zillarrezkoa, bigarren izan delarik.

Ana Barrenetxea, Gregoria Ferrer, Carmen Espartza ta Mertxe Hualde Taldeak lortu dute urrezkoa, lasterragoak izan direlako 100 metroko txandaka-lasterketan.

Ana Basterretxea, berriz, oztopokoa irugarren gelditu da; brontze.

Eta brontzekoa ere, Carmen Diez, Ester Castillo, Ferrer eta Barrenetxea Taldearen bakoitzari, irugarren lekua erdietsi dutelako 400 metroko txandaka-lasterketan. Denez, 11 domiña!



**"PRINCIPE  
E VIANA"**



SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento  
en Euskara  
MARCELINO GARDE

XVII gn. urtea  
154 gn. zenbakia

Iruña - 1983 - Uztaila

Franc. conc.  
N.º clas. 3460

Director en func. de la Inst.  
Príncipe de Viana  
J. JOSÉ ORAU

## SUMARIO

**1: NEKAZARI, ARROKERIA GALGARRI.** Ruinosa la mecanización del campo, o la falta de solidaridad?

**2-3-4: EUSKALERRI'KO LEIOA.** Ventanal: premio al baztanés Imbuluzqueta; profanación en Vitoria; sombras de los «sanfermines».

**5: EGUZKIAREN ALDE ONAK ETA TXARRAK (II).** Perjuicios del sol. MEDIKU ZAARRA.

**6: BOLIBAR ASKATZAILLEA.** II.º Centenario del Libertador. Entre marxismo y capitalismo aún le queda al vasco Bolívar América por liberar. ASTEKARI.

**KATALUNIA:** Jordi Pujol TVE'n. Un autonomista que dice cosas y caen bien en TVE. ASTEKARI.

**7-8-9-10: BERTSOLARIA.** «Hemingway y yo», ITXAKO BORDA; un poema con garra. «Joxemari Atano», EGI'TAR Bl. Versos festivos de Valentín, otro de la «saga» Atano. ALBIZU, IGOTZ, MUNIATEGI. Y un recuerdo poético a D, Luis Galarraga Uzkudun.

**11: GAUZA BITXIAK.** Magnífica foto, insólita, gratificante: el Circo de Moscú actúa ante el Papa.

**12: IRUN'GO TA ONDARRABI'KO «ALARDE» JAIK.** Los «alardes», fiestas de hoy, dolor de ayer, fraternidad de mañana. Amén. DUNIXI ONATIBIA.


**13: ERRIZ-ERRI:** Fiestas de Elizondo, X.X.; maíz tostado en Filipinas, PATXI ETXEBERRIA, que hace 50 años recibía premios literarios y, a los 83, sigue escribiendo; OZKIN, «aquí no hay paz». Lo dice quien pasó la guerra y pasó la mar: 33 días en una cáscara de nuez hacia la América de la libertad...

**14: PERU TXIKI,** fiel a la cita.

**15: ARRIJASOTZAILLEAK.** Levantadores de piedras, ERASO: una teoría que nos lleva a edades líticas. Mikeltxo Saralegi, Leiza: 15 años, y la «bolita» de 119 kg. como si tal cosa.

**16:** Restauración del Palacio-Ayuntamiento renacentista de Viana. Premio del Ministerio a «Orquídeas de Navarra», edición de Príncipe de Viana.

## BIANA'KO UDAL-JAUREGIA ERORTZETIK ZAINDUA



Biana'ko Aiuntamentuaren Jauregi-Etxea, berrituz gero

Naparroa'ko Biana'n —izan ere bada beste Viana bat urruti— jauregi bat oso ederra dute Erriko-etxe edo Udaletxe. Zaartu ta ondaturik zegoena, berritu ta konpondu egin dute. Orrela, Uztaila'ren 22'an, Magdalena-jaietan, zabaldu dute arras berriturik.

Berritze-lan auek, orain bi urte asi zituzten. Lan oietan oso trebea den Kramer jaunak burutu ditu, «Cutillas» izeneko langille-taldearekin. Guztira, txantxetan ere, 38 milloi pezta txautu dituzte.

Barne ta kanpo garbitu dute jauregi ederra. Armari bikaiña, ain ondaturik zegoenez, ez dute konpontzerik izan. Dorre bakoitza askatu egin zuten eta adriluz-adrilu berriz jaso dituzte. Bien artean, berriz, arrizko esi edo keleta dotorea jarri dute, aintzinean zegoena, desegiñik eta galdurik baitzen.

Lan ederra egin dutela, esan bear. Eder eta bikain gelditu da jauregi ori. Zor zitzaion, bai orixe, Biana'ko Printzearen errialdeko uriburuari. Orrelaxe bear zuen.

## Orquídeas de Navarra

Iruña'ko «Príncipe de Viana» erakundeak argitaratua da «Orquídeas de Navarra» liburua, Forudun Aldundia'ren babespeko erakindeak alegia.


Marianne Van Der Sluys eta Jesus Gonzalez Artabe, senar-emazteak dira liburuaren egille. Argazki ta marrazki ugariz ornituriko liburua da bere 325 orrialderekin. Argitaratzaile, berriz, Burlada'ko «Industrias Gráficas Cas-tuera, S.A.» deritzaiona.

Madril'go Kultura-Ministerioak, joan zen Ekainilla'ren 30'ean erabaki zenez, ongien eta egokien argitaratu di-

ren liburuen artean saritu du, ain ederki ta apain erata dagoelako.

Madril'go Kultura-Ministerioak bigarren aldiz saritu du Naparroa'ko Forudun Aldundia'k argitara ateratako liburu bat. Ain zuzen ere igaz, «Formación de la imagen plástica del niño» liburua saritu bai-zuen. Onen egillea, Maria Isabel Cabanellas izan zen eta «Grafinsa» argitalextean argitaratua da liburua.

Asko ere asko pozten gaitu, egia esan, gure Erakunde onen Argitalpenak ain ongi egiña izateak. Eta lortu dituen sariek ere asko poztu gaituzte.



DIPUTACION FORAL DE NAVARRA  
INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA